

Osteguna, 2010ko apirilak 15 - 17:07

Plaza

bilatu...

Bilatu

Hasiera BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak

Paperekoa PDFn Iragarki laburrak Hitzza

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | Plaza

Berria.info » Papereko Edizioa » Plaza

2008-01-17

Edari desiratuaren garaia

Andoni Luis Aduriz Erreenteriako Mugaritz jatetxeko nagusiak eman dio hasiera txotx garaiaari Astigarragan.

ESTITXU ZABALA

Astigarraga

Sagardoarekin dator jende pilaketa

Iritsi da Euskal Herriko jende askorentzat hain preziatua den txotx garaia. Jende ugari bildu zen Sagardo Berriaren XV. Eguna ospatzeko atzo, Astigarragan (Gipuzkoa). Andoni Luis Aduriz sukaldaria izan zen eguneko protagonista herrian. Sukaldariaren hitzetan atzoko ekitaldiarekin eman zitzaion hasiera 2008ari. Goizean, urteroko ohiturari jarraituz, atxurra eskuetan hartu eta sagarrondo bat landatu zuen Sagardo Etxeko sagastian Mugaritz jatetxeko nagusiak. Sukaldaria lanean ari zen bitartean, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañak bertso bana bota zuten. Egañak kantatu zuena gogoratuz, «*ene zenbat lan egin behar den / gerora goza dezagun*», eta hori inork baino hobeto sagardogileek dakite. Zapiain sagardotegiko sagardoaren kalitatea kontrolatzeaz arduratzen da Egoitz Zapiain, eta garaia gogoz hartu dutela dio. Hala ere, nahikoa lan izango dutela aitortu du, «datorren astelehenerako jada 96 lagunek tokia hartua dute gurean!». Petritegi sagardotegia izan zen eguneko bigarren protagonista, bertan eman baitzitzaion hasiera aurtengo garaia. Txalapartaren soinuarekin sartu ziren upelen ingurura Aduriz eta gainontzeko lagunak. Sukaldariari eskainitako aurreskua dantzatu ondoren, txotx egiten lehena Aduriz bera izan zen. «Gure sagardo berria» esaldia esan zuen sagardo basoa eskuan hartuta, eta sagardo berria dastatu zuen.

Sagardogileek, herritarrek eta kazetari mordoak hartu zuten atzoko egunean Petritegi sagardotegia. Denek probatu nahi izan zuten sagardo berria. Lizaso bertsolariak sagardoa gustatu zitzaiola esan zuen, baina ez zen konparaziorik egitera ausartu, «aurreko urteetakoa nolakoa izan den ahaztua daukat!», zioen barrez. Lizasok aurtien ez duela sagardotegira askotan joateko asmorik esan zuen, «orain gutxi egiten da bertsotan sagardotegian».

Aurtien aurreko urteetan baino sagar gutxiago erabili dute sagardogileek sagardoa egiteko, eta sagarraren tamaina ere txikiagoa izan da. «Oso baldintza onak izan ditu uztak, udako tenperatura aurreko urteetakoa baino freskoagoa izan baita», argitu zuen Joxe Angel Goñi sagardogileak. Hala, aurtengo sagardoa nahiko gardena eta usain handikoa da. 2007ko sagar uztarekin 12,5 milioi litro sagardo egin dira. Bestetik, Goñik txotx garaian herrian sortzen den giroa azpimarratu nahi izan du, «hartu-eman handia sortzen da bisitarien eta herritarren artean».

«Sagardoa eta txakolina dira gure lurraldearen nortasuna markatzen duten bi edariak», esan zuen Rafael Uribarren Gipuzkoako Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuak. Hala, sagardoari nortasun propioa emateko lanean ari direla azaldu zuen. Izan ere, duela 26 urte Foru Aldundiak plan estrategiko bat martxan jarri zuen.

SAGARDO ETXEAREN BERRIKUNTZAK. Museoak, interpretazio zentroak eta inguruko sagastiak osatzen dute Astigarragako Sagardo Etxea. Sagardo Etxearen hurrengo helburua Ergobia auzoan dagoen Erbitegi-Etxeberria baserriko tolarea berritu eta jendearentzat irekitzea da. Goikoetxea anaien baserriak hiru pisu ditu, eta garai batean sagardoa nola egiten zen ikusteko aukera ematen du. Goran sagarrak jartzen ziren, matxakara pasatzen ziren. Gero, lortutako zukua tolaretik upelera iristen zen. Egun, Sagardo Etxearen interpretazio zentroan proiektuaren maketa ikus daiteke.

Sagardoarekin dator jende pilaketa

Txotx garaian jende asko igarotzen da egunero Astigarragatik eta Hernanitik, batez ere asteburuetan.

E.Z

Hernanin, duela 11 urte Txotx Batzordea sortu zuten, kudeaketa hobetzeko asmoz. Sagardogileek, tabernariak, Alde Zaharreko bizilagunek, Udalak eta Tolare Kofradiak osatzen dute batzordea. Talde bakoitzak bere interesak dauzka, eta ez da erraza izaten denen arteko ados jartzea. Altzueta sagardotegiko langilea da Ibon Alkorta, baita Txotx Batzordeko kidea ere.

Alkortaren hitzetan, gaur egun inoiz bizitako une gogorrenak bizitzen ari dira, polemika handia sortu baita txotx garaia inguruan. «Kanpotik etorritako jende berriari ez diogu ongi irakatsi sagardotegiaren kulturaren barnean zer dagoen, eta agian hori izan daiteke akatsa», azaldu du Alkorta sagardogileak. Kexa gehienak txotx garaian sortutako zaratarengatik eta zaborrarengatik izan dira, sexu erasoek ere gora egiten dutela ere zabaldu da. Alkortaren ustez, konpondu beharreko gauzak daude, eta gauza txarrak gerta ez daitezen lanean jarraitu beharra dago. Hala ere, iaz gertatutako kontu jakin batzuek oihartzun handia izan zutela uste du batzordeko kideak, eta hobetu ziren aldeak ez zirela aipatu.

Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 Rubalcabak taldeko burutzat jo ditu hiru abokatuak, eta laguntzaileztat beste zazpi lagunak
- 2 Anjel Mari Elkano Batasuneko kidea ere utziko dute aske ospitala uztean
- 3 "Fiskaltza paraleloak" bukatzeko lege aldaketak eskatu ditu Conde Pumpidok
- 4 Aire trafikoa baldintzatzeraino
- 5 Hamasek bi palestinar hil ditu heriotza zigorra ezarrita, Israelekin kolaboratu zutelakoan

«Iaz aurreko urteetan baino salaketa gutxiago egon ziren Udaltzaingoetan, eta, plastiko gutxiago sortu zen», argitu du sagardogileak. Hernanin elkartzen den jendetza ez da sagardotegietara joaten den jendea soilik, eta jende guztia kontrolatzea lan zaila izaten da. Herriko udaltzainek segurtasun neurriak handitzen dituzte, eta lankide konpurua handitu egiten dute.

«Bata bestearenganako errespetua lortzea da gakoa. Herri libre eta bizia nahi badugu, bakoitzak bere burua neurtu behar du», azpimarratu du Alkortak.

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa |  

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
Telefonoa: 943 304 030 / Faxe: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa